

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2026ko errolda eta kobratzeari ekitea**

Behin-behineko onespena eman zaio hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2026eko erroldari, eta jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, interesa dutenek aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsitza joko da, eta kobratzeko aldiari ekingo zaio.

2026ko irailaren 1etik urriaren 30era bitartean, bi egun horiek barne, egun baliodunetan, hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2026ko ordainagiriak ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku erakundearen duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Zergadunei gogorarazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa. Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2026ko irailaren 30ean.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari ekingo zaio, hala xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak, eta kobratu beharrekoari legez ezarritako erre-kargua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutze interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2026ko apirilaren 14a

*Alkatea*

**ANA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE MONJE ALZOLA**